

@@@IRAGARKIA, Laneko zuzendariarena, «Atea Euskadi -OLT, Federación de Transitarios, Organización para la Logística y el Transporte» enpresa-elkartearen estatutuak aldatzeko agiriak gordailutu direla aditzera emateko dena.@@@

Apirilaren 22ko 873/1977 Errege Dekretuko 4. artikuluan ezarritakoa betez, eta interesdunek –iragarki hau argitaratu eta 8 egunetan– egokitzat jotzen dutena idatziz alega dezaten, honako hau ematen da aditzera: XXXXXXXXXXXXX jaunak (NAN: XXXXXXXX) «Atea Euskadi-Olt, Federación de Transitarios, Organización para la Logística y el Transporte» enpresa-elkartearen estatutuak aldatzeko agiriak aurkeztu ditu Lan Zuzendaritzan, 2011ko uztailaren 12an.

Lurralde-eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa.

Lanbide-eremua: izenak dioena.

Halaber, estatutuak aldatzeko aktaren sinatzaileak honako hauek direla jasotzen da:

XXXXXXXXXXXXXXXXX jauna, NAN: 15.245.240-N (idazkari teknikoa)

XXXXXXXXXXXXXXXXX jauna, NAN: 15.236.007-W (lehendakaria)

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 14a.

Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.